

## EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURAREN LEKUKOAK

Bergara, 1978 - V - 26

Luis Mitxelena

Honi eta hari entzuna diot Euskaltzaindia hasiko ote den liburu edo idazki sorta edo bildumaren bat argitaratzen. Hori dela eta, "Euskal klasikoen" izena edo erabili du norbaitek.

Ezin hobeki deritzat asmoari, erabat harturik. Izena hautatzekotan, haatik, *Euskara eta euskal literaturaren leku-koak* edo horren antzeko deituraren bat nahiago nuke, gurean agertu behar direnak ez baitira beti, ez behar bada maizenik ere, erbestean "klasikotzat" hartuko lituzketen horietakoak izango.

*Zer argitara.* Ez dugu *embarras du choix* delakoa beste-rik. Hona zenbait izkribu klase:

a) Gutti ezagun diren idazle trebeak: Etxeberri (*Manual-a*, batez ere), Harizmendi, Chourio, Ubillos, Agirre, Prai Bartolome, etc.

b) Hain bikainak ez izanik, hizkuntzaren aldetik zabal-  
tzea merezi dutenak, hala nola Haranburu, Aranbillaga, O. de  
Arin, Belapeyre, Beriain-en bi liburuak, Elizalderen Dotrina,  
eta beste hainbeste eta hainbeste. *Etcheverry "Dorre"-rena!!*

c) Argitara gabe daudenak: Esate baterako, 1800 ingu-  
ruan egin zien hezkuntzaz eta famili-gobernuazko esku-  
izkribuak, osorik nahiz zatika: Oñatiko Arrazolanekoak, Iru-  
ñean, AGN-en, dagoen antzeko beste bat, Héguiateguy (?)  
delakoarenak, eta beste hainbeste eta hainbeste.

d) Ahozkoak, Aita Zavala biltzen ari denak bezalakoak,  
noski baino noskiago.

e) Baita berriagoak ere, behar adina ezagutzen ez badi-  
ra: Jean Etchepare datorkit gogora, baina ez da bakarra.  
Aldizkarietan, eta are egunkarietan ere, badago zer bil, urtea

joan eta urtea etorri elkarren gainean metaturik baitaude, inor guttik begiraldiren bat opa diela.

f) Ez da bakarra izango, baina *Peru Abarka* datorkit burura. Ebanjelioa balitz bezala hartzen dugu lehen (liburu bezala) edizioa, gerokoek ez baitute hura aldatu baizik, idatzi baino 80 urtez geroago agertua, esku izkribu batetik eta Jainkoak daki nola. Edizio kritiko bat merezi duela uste dut, ahal bezanbat esku-izkribu horretarako bildurik.

*Nola.* Facsimilean ez, bestela baizik. Argitaragabeak direnean (J. Lizarragarenak eta abar), *dauden daudenean* atera behar dira. Besteekin ere (eta hori aski garbi ikusi da azken urteotan agertu den edizio batekin edo besterekin) kontuz baino kontuzago ibili behar. Etcheberri edo Belapeyre, esaterako, nik ez nituzke batere aldatuko (oraingotuko, esan nahi dut) eta, liburu baten grafia aldatzea erabakitzen baldin bada, hasitzerako pentsatu noraino egin daitekeen eta nola.

Ez litzateke desegoki zenbait behinipein ohar eta argibidez hornituak ateratzea.

*Nork.* Hortarako gogoia duenak, noski. Gerta daiteke, beraz, jendea eskas ibiltzea; baita ere, ordea, ugariegi azaltzea. Batzorde ttiki bat hautatu beharko litzateke, zenbait interes klase orekan daudelarik: hizkuntza eta literatura zaleak, neurtitzak eta prosa, gai hau, hori eta hura, zahar eta berriago, etc.

Nolanahi ere den, edizio-apaintzaile izan nahi duenak batzordeari aurkeztuko dio *nola* egin nahi duen egin behar duena eta batzordearen baimena nora-ezekoa izango da horretarako. Ezin dezake lana nork bere gogara egin.

Hori onartzen balitz, batzordea hautatu eta lanean abiatu beharko luke Euskaltzaindiak. Norbaitek, gainera, lumero kontua bere gain hartu beharko du, indarrak ongi neurtzeko hasi baino lehen.